

ALDAKUNTZA EBALUZIO-TXOSTENA

TITULUAREN IZENDAPENA	PEDAGOGIA GRADUA
UNIBERTSITATE-ESKATZAILEA	UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak Tituluen Jarraipenaren prozesuaren baitan Unibasq-era aurretik egiaztatutako memorian jasotakoari dagokionez aldakuntzen ebaluazio-eskaera bidali du. Eskaera hori 1393/2007 Errege Dekretuaren, eta honen ondorengo aldaketen, 28. Artikuluaren babesean aurkezten da, zeinaren bitartez egiaztatutako titulu ofizialak eskuratzeko ikasketa-planen aldakuntza-prozedura ezartzen den. Halaber, Unibertsitatea "Unibertsitateko Tituluen Aldaketa Eskaerarako Gidaliburua (gradua eta masterra)" jasotakoari heltzen dio, non zehazten diren zeintzuk prozesuen bitartez aurkeztu beharko dituzte unibertsitateek bere graduko edo masterreko tituluetan sartzten dituzten aldakuntzen jakinarazpena edota ebaluazioa.

Txosten honetan Unibertsitateak aurkeztu duen Jarraipen-Txostenean adierazitako alderdien ebaluazioa bakarrik jasotzen da, 2.1 eta 4.1 ataletan jakinarazitakoak. Ez dira ebaluatutzat hartuko Unibertsitateak memorian aldatutako alderdiak eta atal horietan jaso ez direnak.

Instituzioak titulazioaren ikasleriari modu egokian aldaketa hauen berri eman beharko dio, horretarako dituen baliabide guztiak erabiliz.

Ebaluazioa Gizarte eta Lege-Zientzietako Batzordeak egin du, profesionalekin, ikasleekin eta esparru akademikoaren nazioarteko zein nazio-mailako pertsona adituekin osatua dagoena. Batzordearen kideak agentziaren web orrian jasotzen den prozedurari jarraituz hautatu eta izendatu dira.

Aldakuntza-eskaera aztertu ondoren Ebaluazio-Batzordeak **ALDEKO** ebaluazio -txostena igorri du, honako hau kontuan izanik:

Unibertsitateak jakinarazitako aldakuntza:

'Ekonomia, Hezkuntza eta Lana' irakasgaia bertan behera uztea eta irakasgai berri bat izenburu honekin *'Pedagogia Laborala eta Formazioa Hezkuntzan'* eskaintzea.

Unibertsitateak ikasgaia hautazkoa dela eta matrikula arazoak izan dituela adierazi du eta gainera, pedagogoen mapa profesionalen irteerak ikusita indar gehiago hartzen duela irakasgai honen eskaintza kentzea eta Formazio eta Enpresa eremuko ikasgaia eskaintzea.

Batzordearen Balorazioa:

Batzordeak unibertsitateak aurkeztutako aldakuntza egokitzat jotzen du, ingelesez ematen diren hiru irakasgai eleaniztasun planera mugitzeko aldaketak ez dielako Titulu Ofizialaren izaerari eta helburuei eragiten.

Txosten honetan ezarritakoaren aurkako alegazioak aurkeztu ahalko dira, 10 egun naturaleko epean. Epe hori igarotakoan, unibertsitateak alegazioak aurkezteari uko egin diola ondorioztatuko da eta txosten hau behin betiko txostena bihurtuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 8an

Stua.: Eva Ferreira García
Unibasq-eko Zuzendaria